

**ERROMAKO MEZA-LIBURUA**  
**ERROMAKO MEZA-LIBURUAREN HIRUGARREN**  
**ARGITALPENA: GAZTELANIAZ**

1970.eko apirilaren 27an, Eguen Santuz, argitaratu eta plazaratu zan “MISSALE ROMANUM”, Vatikanoko II.a Kontzilioak hartutako erabagien arabera erabarritua. 1975.ean agertu zan bigarren argitalpena, zuzenketa eta zehaztasun batzukaz, eta gehigarriren bategaz.

2002.eko zezeilaren 22an amaitu zan Vatikanoko Tipografian Meza-Liburuaren (MISSALE ROMANUM) argitalpen barria, bere hirugarren argitalpen “tipikoan”, eredugarrian.

Eta oraintsu, egunokaz kaleratu da Meza-Liburuaren argitalpen barria gaztelaniaz. 2002ko latinezko hirugarren argitaraldiaren arabera egin da honako hau, nahiz eta aurretiaz, 2008an, latinezko testuari aldaketaren bat edo beste eginda egoan.

Gotzainen Batzarreko Liturgiarako Sailak hainbat urte emon ditu lanean: Alde batetik latinezko hirugarren argitaraldiagaz bat datorren testua prestatzeko eta, bestetik, egozan testuen itzulpen barria egiteko, Jainkoaren Gurtzarako Kongregazioak eta *Liturgiam authenticam* 2001eko Sakramentuen Disziplinan ezarritakoaren arabera. Hauxe zan horreen eskaria: latinezko testua goreneko fideltasunez jarraitzea eta itzulpena “hitzez hitz” egitea.

Liburu barriak 1386 orrialde ditu (21 x 28 zm.). Edizinoa eta azala (kuadernaketa) oso zehatz eginda aurkezten dira. Meza-Liburuaren hasieran latinezko azken argitaraldiaren ara-

berako *Antolamendu Orokorra* jartzen da. Testu honek al-daketa nabarmenak izan zituan aurrekoagaz alderatuz (halan be, 2008an gaztelaniaz argitaratua egoan “separata” modura).

### **Aldiko berezia**

Aldiko berezian hainbat gauza gehitu dira:

- Mezetako hainbat otoitz eta formulario;
- “Kolekta”-otoitz barria abenduaren 29rako;
- Meza Agerkundearen bezperarako;
- Azken bedekazinoan erabili daitekezan “herriaren gaineko” otoitzak gehitu dira Garizuma aldirako;
- “Kolekta”-otoitza Doloretako Ama oroitzen dauan Garizumaldiko V. asteko barikurako (“Doloretako Barikua”);
- Bateo-gaia jasoten dauan otoitza Garizumaldiko V. asteko zapaturako;
- Hamaika “kolekta” barri Pazko aldirako, errepikapenak baztertzeko;
- Meza Igokundeko bijiliarako, eta
- Hautazko bigarren “kolekta” bat eguneko mezarako;
- Urtean zeharreko otoitz batzuri ikutu batzuk egin deutesiez.

### **Mezaren egunerokoa**

Mezaren egunerokoan:

- Prefazioen amaierak latinezko *Meza-Liburuan* dagozan amaiera ugariei (anitzei) ajustau jakez, gaztelaniaz gitxi batzuk baino ez ziralako erabilten eta, ondorioz, errepikatu egiten ziralako;
- Martirientzako prefazio barria gehitu da;

- Eukaristiaren konstituzinoaren kontakizunean, “por muchos” esamoldea agertzen da kalizaren kotsagazinoan, “por todos los hombres” dalakoaren ordezt, Benedikto XVI.ak erabagi ebanetz;
- Eukaristia-Otoitzetan (II. III. eta IV.a) San Joseren ize-na gehitu da, Jainkoaren Gurtzarako Kongregazinoak eta Sakramentuen Disziplinak 2013an ezarrিতাকoaren arabera;
- V. Eukaristia-Otoitzeko lau aldaeren “ordena” aldatu egin da: laugarrena *Eleiza batasunerako bidean* deitutakoa, lehenengo bihurtu da, gainontzekoak leku bat mogiduazoz;
- Testuak gehitu dira bedeinkazino nagusietan eta al-daketak egin “herriaren gaineko” otoitzetan;
- Latinezko eranskina (*apendizea*) separata modura ipini da, liburukiaren orrialdeak gitxitzeko eta hizkuntza horretan ospatu behar danean erosoago erabili ahal izateko.

### Santuen berezia eta orokorra

Santuen izendegian, nahitaezko lau oroimenetarako testu liturgikoak gehitu dira eta baita 1975eko latinezko bigarren argitaraldi “tipiko”tik aurrera, Egutegi Erromatar Orokorretarako gehituten joan ziran

- hamazortzi oroimen libreak
- eta beste hogeta hamazapi otoitz barri
- eta hainbat otoitzetan sartutako aldaketak be.
- Espainiarako onartutako oroimen barri bi be jasoten dira.

*Meza-Liburuak* santa Maria Magdalenaren eguneko (uztailak 22) prefazioa jasoten dau, “oroimen” izatetik “jai” izatera pasa zalako joan dan ekainean.

Andra Mariaren jaietako izenburuak bateratu egin dira, Mariak bere lehengusina Isabeli egin eutsan bisitaldian agertzen dan esamoldea hartuz: dohatsua (*beatam me dicent omnes generationes* – dohatsu deituko nabe gizaldi guztiek), ze, horixe agertzen da latinezko *Meza-Liburuan*.

Santuen orokorrean;

- Maria Birjinaren mezak lehen zazpi ziran eta orain hamaika;
- Formulario barria gehitu da hainbat martiriren orokorrean;
- Artzainen mezak sistematizatu egin dira;
- Eta formulario barria sartu da monje batentzat;
- Eta beste bat monja batentzat.

### **Ohikunetarako Mezak (erritualak)**

Berrantolatu egin dira:

- Kristau sarbidearen etapei dagokiezan formularioak
- Gaixoen oliadurari
- Biderakoari (*biatikoari*)
- Ordena sakramentuari
- Ezkontza sakramentuari dagokiezan formularioak.

Errubrika-erreferentzia gehitu da “irakurle” eta “akolito”ak sortzeko mezatarako.

### **Beharrizan batzuetarako mezak**

Hainbat beharrizanetarako mezak hiru multzotan banatu dira eta ez lautan, orain arte egiten zan lez:

- “Eleizaren alde”;
- “Beharrizan publikoen alde”;
- “Hainbat beharrizanen alde”.

Eta lehen berrogeta sei ziran mezak, orain oster, berrogeta bederatzidira, formulario barriak 11. zenbakian dagozala (ezkontzaren urteurrenetan) eta 39. zenbakian (kontinentzia eskatzeko).

### **Debozinozko mezak**

Debozinozko mezei dagokienez,

- Jainkoaren Errukiarena,
- Jesu Kristo gure Jaun eta Abade Nagusiarena
- eta San Joan Bateatzailearena gehitu dira, lehen hama-sei ziranak orain hemeretzi bihurtu dirala.

### **Hilen mezak**

Hildakoen mezak be beste era batera antolatu dira.

- Orain bost kapitulu barik, lau dagoz;
- *Izan be, Umeen hiletetan* deitutako V. kapitulua desagertu egin da, *Hiletetan* deitutako I. kapituluari gehitu jakolako.

Hogeta hamar otoitz baino gehiagotan, aurreko argitaraldietan desagertu egin zan “*arima*” hitza, orain agertu egiten da.

### **Eranskinak (apendizeak)**

Azkenik, eranskinean, mezaren barruan kalizaren eta patenaren bedeinkazioa gehitu da.

### **Bibliako testuak**

*Meza-Liburuaren* argitaraldi barriak, Espainiako Gotzainen Batzarraren testu bibliko ofiziala jasoten dau, bere sarrerako eta jaunartzeko antifonetan eta jasoten dituan irakurgai eta ebanjelio bakarretan.

Dalako testu ofizial hori 2008an onartu eben Gotzainek, eta Jainkoaren Gurtzarako Kongregazioak eta Sakramentuen Disziplinak 2010ean eta 2014an emon eben erabilera liturgikorako.

## **Musika**

Mezaren eguneroko osoari musika jarri jako, aurreko argitaraldietan bete ez zan guraria betez. Hiru CD dira, abestu daitekezan zati guztiakaz eta prefazioakaz.

Hitzaren liturgian *hiru melodia-eredu* jaso dira irakurgaien katurako (lehenengoa, bigarrena eta ebanjelioa), irakurgaien katurako tonu gregoriano tradizionalak osotzen dabezanak.

Gainera, ebanjelioan, instituzinoaren kontakizunaren karentzia berbera imitatzen da, holan Hitzaren liturgiaren unerik gorenaren (Ebanjelioa) eta Eukaristia liturgiaren unerik gorenaren (Kontsagrazino) arteko paralelismo musikala ezarriz.

Gauza bera egin da ebanjelioaren osteko erantzunarekin, hautazko formula jarritz Kontsagrazinokoaren parean.

Hogei formula eskeintzen dira Salmoak abesteko, *Irakurgai-liburuan* jasoten diran erantzun-salmoak abesteko, eta beste hamar formula ebanjelioaren aurreko txatala kantatzeko.

## **Harrera ona egin**

Itzela da Meza-Liburuaren balioa eleizaren bizitzan. Izan bere, Meza-Liburua da, Jainkoaren Berberean Irakurgai-Liburuaren ostean, liturgiako libururik garrantzitsuena. Bertan agertzen jakuz Eukaristiaren ospakizunean erabili beharreko testuak. Gure artean Meza-Liburuari “Altarako Liburua” edo “Ospatzaile Nagusiaren Liburua” be deitu izan jako. Meza-Liburua dogu Eleizaren otoitz liturgikoaren liburua Eukaristia edo Meza Santua ospatzeko, “gure sinismenaren Misterioa/Sakramentua” ospatzeko.

Eta gogoan izan behar dogu liburu honek banatuezinezko batasuna (egiten ) dauala Jainkoaren Berbearen Irakurgai-Liburuagaz batera. Kontzilioaren (Vatikano II.a) aurretik liburu bakarra osotzen eben Meza-Liburuak eta Irakurgai-Liburuak.

Orain banan eskeintzen dira, bai erabilgarriagoak izan daitezcan, baina baita, aparteko eran, Eukaristiaren funtsezko egitura ospakizunean bertan azpimarratzeko bere. Hatan bere, Eukaristiak, kultu egintza bakarra izanda (ik SC 56), guretzat prestatzen dan mahaian, alde bi ditu: Jainkoaren Berbearena eta Kristoren Gorputzarena.

Erromako Meza-Liburu Eleiza osoarena da eta fededun guztientzakoa: otoitzerako libururik onena. Otoitz egiten erakusten deusku eta Eleizeak zelan otoitz egiten eta ospatzen dauan adierazten. Era horretan kristau-bizitzarako ezinbesteko oinarri eta iturri bihurtzen jaku. Onartu daigun esker onez eta erabili begirunez.

*Lontzo Zugazaga*